

EDITORIALA

Irakurle agurgarria,

TANTAK aldizkariak bere ibilbidea hasi zuenean euskarazko irakaskuntzan dihardugun guztioi laguntza eskatu zigun. Alde horretatik, TANTAK laguntza faltan ez da egon eta egongo ez dela ere ziur gaude.

«TANTAK beharrezkoak izaten dira lurrak bere baitan ereiniriko hazia fruitu gozo edo lore dotore bihurtuko badu» irakurtzen zen lehendabiziko alearen aurkezpenean. Hori 1989an irakurtzen genuen. 18 urte luze haue-tan ez TANTAK bakarrik, langarra eta euriak ere gure euskararen lurra busti dute lorategi ederra bihurtuz.

Zure eskuetan duzun alea jada, 35. da. Euskarazko aldizkari batek bere 35. alea argitaratzea ez da txantxetakoa, ezta gutxiago ere. Eta hau dena, zuei esker, alegia, irakasle, idazle eta irakurleei esker.

TANTAK-ek 35. alea argitaratzea pozgarria bada, pozgarria da ere azken egun haue-tan jaso dugun berria. Madrileko Complutenseak eta Zaragozako Unibertsitateek G-9 unibertsitate-taldearekin batera burutzen ari diren ERCE (Evaluación de la calidad de las Revistas Españolas de Humanidades y Ciencias Sociales) izeneko ikerketan gure aldizkariari emandako balorazioa jaso dugu.

Aspektu formalak eta normalizazioaren araberako balorazioan, Espainiar Estatuko aldizkariak 5 taldetan sailkatu dira, ebaluazio altuena jasotzen duen A taldetik baxuena jasotzen duen E taldera. TANTAK aldizkaria B taldean dago. Bigarren alorrean, alegia, CSIC eta unibertsitate desberdinetako adituek egindako ebaluazioan TANTAK aldizkariari 7,5 puntu eman dizkiote, puntuazio altuena 10 izanik.

Merezi izan du, ezta?

TANTAK egin, egiten eta egingo dutenen izenean, mila esker.

Zuzendariak
Donostian, 2006ko maiatzaren 2an